

DIRUBA EGITEKO EREA

Lengo zenbaki baten ageftu neban zeinbat karotu diran, edo ziatzago zeinbat karotu dabezan bixigayak. Oin etxekandereak dirutan eralgi bial-dogu bi bidar geyago guda madarikatu onen asikerian baño. ¡Geuk gixaxuak!

¿Ez ete-dago oftik *erezetaren* bat diruba egiteko? Ondiño gomutetan dot neskata nintzala Bilbao'ko kalietan erderaz abestuten gendubanaz: «*¿Con qué se hace el dinero? — Con cáscaras de huevo.*» Bana zoritzafez, ofek ume-burukerijak baño eztira. ¡Arek aldijak!

Baño itxi dagijogun *pilosopokerijari* ta guazen arira.

Diruba egiteko eraren bat bial-dogu etxekandereak. ¿Zetan dabiltz of gixontxubak gixasemiak erailteko ainbeste ta ainbeste asmakundetetan? ¿Ez ete-dabe asmauko diruba egiteko *erezetaren* bat? Bai-dabe asmau, bai... diru *palsua* egiteko. Baña ori ezta geuk bial-doguna, kartzelerako jayuak ezgara-ta.

Eta eurok asinetan eztauskubenezkero, guk asmau bialko dogu. Ona emen, etxekandera euzkeldunak, diruba egiteko errea: *Alik geyen irabazi ta alik gitxijen eralgi edo gastau.*

¡Ori dok, osteral! — esango edo-dabe orain gure etxekanderiak — ¿ori esateko ainbeste *pilosopokerija*?

Ez estutu, emakumiak. Nik emongo dautzabet diru apuñtxu bat gitxijago eralgitteko *erezetatxu* bat.

Geyen karotu diran gauzaen aftian jaboya dago ¿Zetan, ba, ain dirutza edefak jaboyaren orde z dendarijai emon? Etxian egin eta kifu.

¿Bana ete-leteke noberen etxian jaboya egin? Bai ta efaz ta merke egin be. Eta dendan erosten dozubena baxen ona, gero.

¿Zelan, baña? — Ara:

Drogerija batera juan eta bertan auxe eskatu erderaz, *drogerija* geyenetan euzkerarik eztakije-ta:

<i>Sosa cáustica</i>	1/2 libra
<i>Resina</i>	1/2 »
<i>Goma arábiga</i>	10 céntimos
<i>Jaboncillo</i>	10 »

Gusti au etxera eruan eta galdara baten saftu, *jaboncillo*'a ixan-zezik. Eta ganian ezafi 10 kuartilo ur, kilo bat koipe (*sebo*) ta ontza bi olijo.

Neste ori eginda, sutan imini ta ordu bitan irakiten euki, beti eskumatara eraginda.

Sutatik atara baño bost minitu lenago, *jaboncillo*'a ezafi ta eragin gustijari. Eta gero otzifuten itxi ta atara.

Era ofetan egindako jaboyak 15 egun edo geyago bial dauz legoñtzeko, baña gero garbitzen dau gustiz edefito. Ezta urteten dendan saltzen dana baxen polifa, baña bai askozaz merkiagua ta orixe da bial-doguna.

Dendan libra batek balijo dau 7 ala 8 txakur andi ta etxian egindakuak balijoko dau 3 ala 4 geyen-geyenez.

Nik, beintzat, aspaldiik, eztot dendan jaboirik erosten.

Ora, ba, zelan diruba egiteko era bat erakutsi dautzubedan.

ETXAKIN.

OKEBIA TA SALTSIA

Artobero lanian eguan soluan.

Noxian-bein buruba jaso ta bide-alderantz begiratzen eban, ia semia etofan askari edo meriendiaz. Egin-egifian be egun atan inoz baño gurari andijagua eukan askarijateko, emaztiak esan eutsolako okela-zati galantak, saltsiagaz eginda, bidalduko eutsozala bere jai-eguna ospatu edo zelebratzeko. Baña Artobero'k ezaban inor ikusten.

Oraitino, Artobero'ren semia bai-etofan astiro-astiro, kazuela andi bat eskubetan ekañala.

Mutilak susmau eban kazuelian eroyan askarija gozo-gozua ixango zala, usain ona botaten ebalako. Eta otu yakon atzamañak saftu ta okela-zati bat jan.

Otu ta egin.

—¡Ene, au da gozua!—esan eban bere kolkorako, okela-zatija janda.—Eta bat edo bi aftutia bafdin-bafdin da-ta, beste bat aftuko dot.

Eta beste zati bat be aftu ta jan eban.

Zati bijok aftuta, oidoztu edo pentsau eban bafdin ixango zala bi edo iru aftzia. Eta banan-banan iruntsi ebazan okela-zati gustijok.

Kazuelia saltsiaz bakarik geratu zan. Eta itxura ofetan ikusifa, bildur-ikarea saftu yakon geure mutilari, aifak emongo eutsozan belafondokuak gomutaurik.

Bifaftian, Artobero gixaxua soluan eguan lanari ekin eta ekin eta askarija noz demontre elduko zan pentsetan.

Alako baten ikusi eban bere semia bidetik etofala kazueliaz. Baña mutila negafez etofan eta au susmo txafa aftzeko zan.

—¿Zer dakak, mutil, negaf egiteko?—ifandu eutson aifak.

Mutilak erantzun ez.

—Nik igafi bayetz zer jazo edo pasau yakon. ¿Jausi ete-yak askarija?

—Bai, aifa.

—Baña, mutil, ¿zelan ixan dok ori?

—Ara: Of bidetik nentofala topo-egin dot ari andi bategaz. Kazuelia-lufera jausi yat bere okela, saltsa ta gusti. ¡Eta sekulekuak egin-afen, saltsia baño ezin ixan dot atrapau!

AMILGAIN.

EGUTEGI EUZKOTARA

Aurtengua salgei dago «Euzkeltzale-Bazkuna»'n eta Bizkai'ko Batzokijetan. *Erial bat* baño eztau balijo.

Euzkeldun onak erosi begi, ta etxako damutuko.

Astakilo'k semia darua eskolara, bertan saftzeko ustiaz.

Iraklari edo maisuak ifaun (pregunta) batzuk egiten dautso mutilari ta gero dirautso aitari:

—Mutil au motela da.

—Bai, baña ori etxako igarten berba-egiften daunian baño.